Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4993

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 5ekoa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak entitateak «Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC» proiektuan aurkeztutako uko-egitea onartzen duena, GLLFren kargura 2005ean proiektuei diru-laguntzak emateko deialdiaren baitan.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura 2005eko ekitaldian proiektuei laguntzak emateko dei egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen apirilaren 5eko 70/2005 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri berehala emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du. Proposatutako aldaketak onartzea Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez, 210.619 euroko diru-laguntza eman zitzaion Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak entitateari «Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC» izeneko proiektua egin zezan.

Aipatutako erakundeak, 2009ko abenduaren 30ean, bigarren ordainketaren zati bati uko egiteko eta hirugarren zatiari osorik uko egiteko eskabidea egin zion –idazki baten bidez– Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari (70.036,84 euro eta 42.123,82 euro, hurrenez hurren).

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diru-laguntzaren erakunde onuradunak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du, eta horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak entitateak «Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC» izeneko proiektuan eskatu duen uko-egitea baimentzea, GLLFren kargura 2005ean proiektuei diru-laguntzak emateko deialdiaren baitan. Ondorioz, 70.036,84 euro itzuli beharko dira bigarren ordainketaren zati bati uko egiteagatik, eta 42.123,82 euro, hirugarren ordainketari osorik uko egiteagatik; guztira, beraz, 112.160,66 euro itzuli beharko dira.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4993

RESOLUCIÓN de 5 de febrero de 2010, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia para el proyecto «Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC.» presentado por la entidad Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak, dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al FOCAD 2005.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 70/2005, de 5 de abril, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2005, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak, una subvención de 210.619 euros para la realización del proyecto Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC.

La citada entidad, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 30 de diciembre de 2009 formuló una solicitud de renuncia parcial al segundo pago y renuncia total al tercer pago (70.036,84 euros y 42.123,82 euros, respectivamente).

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia solicitada por Veterinarios Sin Fronteras (Vetermon)-Mugarik Gabeko Albaitariak en el proyecto Mejora de la producción agropecuaria de las familias de Beni-Lubero, RDC, presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al FOCAD 2005. Esto supone la devolución de 112.160,66 euros procedentes de la renuncia parcial al segundo pago, que asciende a 70.036,84 euros, y la renuncia total al tercer pago que asciende a 42.123,82.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 5a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2010.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.